

## ORAIN HEZKUNTZA NEGOCIACIÓN EN EDUCACIÓN

Hilabeteak daramatzagu mobilizatzen eta gure aldarrikapenak argi uzten, baina denbora horretan guztian etengabeko blokeo-egoeran aurkitu gara. Administrazioeko beste sektore batzuetan akordioak lortu diren arren, Hezkuntza Departamentuko buruak eta bere taldeak, ustezko baliabide ekonomikoen falta argudiatuta, elkarrizketa-ezintasuna adierazten dute. Egoera horrek ez du aukerarik eman gure ustez gutxienekoak diren aldarrikapenak negoziatzeko, bai hezkuntza kalitatea bai irakasleen lan-baldintzak hobetzeko.

Momentu honetan negoziazioetarako garaia iritsi da, Gobernua osatzekoa, datozen 4 urteetarako akordio programatiko berria ezartzekoa. Horregatik, Steilas, LAB, CCOO eta ELA sindikatuek osatutako gehiengo sindikaletik, talde parlamentarioekin harremanetan jarri gara eta bilerak eskatu dizkiegu, Nafarroan hezkuntza eraldatzeko eta hobetzeko guztiok egin ditzakegun ekarpenak entzun eta proposatzeko helburuarekin.

Dagoeneko bilera horietako batzuk egin ditugu, eta beste batzuk lehenbailehen egitea espero dugu. Baina gaur eta hemen, negoziazio prozesu honetan parte hartzen ari diren alderdi politikoei eskatzen diegu, gure aldarrikapenak kontuan har ditzatela. Horrela, hezkuntza-zerbitzu publikoa nabarmen hobetuko da. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu Gobernu Akordio berrian konpromiso hauek sartzea: hezkuntza-etapa guztietan ratioa jaistea, erosahalmena berreskuratzea, behin-behinekotasuna %8 errealetik behera kokatzea eta gainkarga burokratikoa murriztea, besteak beste.

Bihur dezagun hasi berri den legegintzaldi hau gauzak ongi egiteko eta aurrera pausoak emateko unea. Hezkuntzari eta hezkuntzan inplikaturako alderdi guztiei mesede egingo dieten akordioak lortzeko, borondate politikoa besterik ez da behar, Nafarroako Administrazioeko beste sektore batzuetan, akordioak lortzeko arazorik izan ez dutela ikusi dugun moduan.

Guk elkarrizketarako eta negoziatorako prest gaudela adierazten dugu. Baina berresten dugu, Nafarroako Gobernuak hezkuntza kalitatearen hobekuntza eta irakasleen lan baldintzen hobekuntza mahai gainean jartzen ez dituen bitartean, hainbat mobilizazioekin gure jarrerari tinko eusten jarraituko diogula.

Hezkuntzan eragiteko garaia da!

Orain hezkuntza!